







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %10,6 egin zuen gora abuztuan, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %11,5 igo zen, etxekoan %3,6 eta hirugarren sektorean edo zerbitzuetan %12,5. Abuztura arte metatutako kontsumoak %2,2 egin zuen gora, 2016ko epealdi berarekin alderatuta; etxeko sektorean %1,8 jaitsi zen, zerbitzu arloan, berriz, %1 igo zen eta industrian %3,6 egin zuen gora.

Azken hilabete hauetan, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauek izan ziren: eraikuntza eta ontzigtza (+%8,6), kimikoa (+%6,4), beiragintza (+%4,6) eta siderurgia zein galdagintza (+%4,5).

Gas naturala

Abuztuan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %17,6 egin zuen gora, 2016ko abuztuan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %131 igo zen eta gainerako sektoreena %4,4.







Abuztura arte metatutako kontsumoak %5,2 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (+%25,1 CCTT-n eta +%2,4 gainerako sektoretan).

Erregaiak garraioan

Uztailen, garraioan erregaien kontsumoak 2016. urteko hil berean izandakoari eutsi zion. Uztailera arte metatutako kontsumoa %4,3 igo zen, 2016koarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %3,3 egin zuen gora eta A gasolioarenak %4,4.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan






Abuztuan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 98,96 milioi kupel izan zen (2016ko abuztuan izandakoaren aldean, %0,1 jaitsi zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %1,8 egin zuen behera kontsumoak, 14,4 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %0,2 jaitsi zen, eta 12,6 Mbpd kontsumitzera heldu zen eta AEBetan, ordea, %0,7 igo zen, eta 20,3 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, Txinan %3,5, AEBetan %1,2 eta Europar Batasunean %1,8.

Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %17,9 egin zuen gora abuztuan, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Abuztura arte metatutako kontsumoak %6,9 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen abuztuan, %1,6, 2016ko abuztuan izandakoaren aldean. Abuztura arte metatutako kontsumoak %0,3 egin zuen gora, iazko epealdi berarekin erkatuta. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %1,5 egin zuen gora uztailean, 2016ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinen kontsumoa %0,2 igo zen eta gasolioena %1,8. Uztailean bitartean metatutako kontsumoak %2,7 egin zuen gora, 2016. urteko epealdi beraren aldean, (%2,1 igo zen gasolinena eta %2,8 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %8 egin zuen gora uztailean, eta uztailean arte izandako kontsumoa %9,5 igo zen, 2016ko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 46,9\$ (41,8€) izan zen ekainean. Urtebetearen prezioak %3,3 egin zuen behera (%3,1 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 47,5 €/MWh izan zen abuztuan; duela urtebete zegoenaren aldean, %15,3 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 15,8 €/MWh izan zen uztailean, eta %9,8 igo zen, 2016ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Abuztuan, EGIX-en prezioa 16,5 €/MWh izan zen (2016ko abuztuan izandakoarekin alderatuta, %26,8 igo zen). Spot merkatuetan, ekainean, Henry Hub-en prezioa 8,9 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 16,2 €/MWh, abuztuan (2016ko hil horietan izandakoaren aldean, %14,4 eta %18,9 egin zuten gora, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, ekainean, gasolioaren prezioa 1,04 €/l izan zen (urtebetearen %0,2 jaitsi da), eta gasolinarena 1,16 €/l (urtebetearen %0,4 egin du behera).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,6 €/t izan zen abuztuan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %18,9 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.